

Euskal AEko industria-prezioak. 2025eko abendua

Nabarmentzekoak

Hileko bilakaera: Euskal AEko industria-prezioek % 0,7 egin dute behera azaroarekin alderatuta.

Urte arteko bilakaera: urte arteko aldakuntza-tasa –% 0,6koa da.

Sektoreak: *Koke-lantegiak eta petrolioa fintzea* % 8,4 jaitsi da hilabete batetik bestera; eta *Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa* % 10,6 igo da urte batetik bestera.


Industria-sektore handiak: *Energia* % 3,5 jaitsi da hilabete batetik besteara eta % 8,9 urte batetik bestera.

Azterketa estatistikoa

Eustatek bildutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioek % 0,7 egin dute behera 2025eko abenduan, aurreko hilaren aldean. Abenduko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 0,6 jaitsi da.

Azterketa xeheago batek agerian uzten du 2025eko abenduan *Koke-lantegiak eta petrolioia fintzea* (% 8,4) eta *Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria* (% 4,0) sektoreek izan dituztela jaitsiera handienak prezioetan, aurreko hilaren aldean. Aitzitik, prezioetan hiletik hilerako igoera handienak izan dituen sektorea *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 5,0) izan da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Helburu ekonomikoaren araberrako ondasunen sailkapenari jarraituz, 2025eko azaroaren aldean *Energiaren* prezioak % 3,5 jaitsi dira. *Kontsumo-ondasunek*, bestalde, % 3,3ko jaitsiera izan dute, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* % 4,2ko jaitsieraren ondorioz; izan ere, *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* prezioak ez dira aldatu. *Ekipamenduko ondasunei* dagokienez, prezioak % 0,3 igo dira hilabete batetik bestera, eta *Bitarteko ondasunen* kasuan % 0,4 egin dute gora.

Urte artean, 2025eko abendua 2024ko abenduarekin alderatuta, prezioen igoerarik handienak honako adar hauetan izan dira: *Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa* (% 10,6) eta *Farmazia-produktuen fabrikazioa* (% 10,3). Aldiz, *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* adarreko prezioek urte batetik bestera % 9,8ko jaitsiera izan dute, eta *Koke-lantegiak eta petrolioia fintzea* adarrekoek % 8,9koa.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Abendua 2025

	Indizea	Aldearen %	
		m / m-1	m / m-12
Indize orokorra	112,3	-0,7	-0,6
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	134,7	-2,0	4,0
Manufaktura-industria	115,0	-1,0	0,1
Elkadararen, edarien eta tabakoaren industria	122,2	-4,0	-1,8
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	112,5	-0,1	1,7
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	123,5	0,8	0,8
Kokeak eta petrolio fintzen	107,3	-8,4	-8,9
Industria kimikoa	128,3	0,7	-1,1
Botiken fabrikazioa	119,2	0,0	10,3
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	115,9	-0,2	-1,4
Metalurgia eta produktu metalikoak	111,1	0,4	1,7
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	122,8	-1,9	10,6
Material eta ekipa elektrikoaren fabrikazioa	122,8	-0,0	9,4
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	115,6	0,1	1,3
Garraiorako materialen fabrikazioa	115,3	0,6	0,6
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	117,2	0,3	0,8
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	81,1	5,0	-9,8
Ura	129,4	-1,1	2,9
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	119,4	-3,3	-0,4
Kontsumoondasun iraunkorrak	114,3	0,0	-0,7
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	120,8	-4,2	-0,4
Ekipa-ondasunak	116,3	0,3	2,1
Bitarteko ondasunak	115,1	0,4	1,0
Energia	96,3	-3,5	-8,9

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2026ko Urtarrilaren 21a

Iturria: Eustat. Industria prezioen indizea

Helburu ekonomikoaren arabera kontsumo-talde nagusien prezioen urte arteko aldakuntza negatiboa izan da *Energian*. Kasu horretan, % 8,9ko jaitsiera izan da eta *Kontsumo-ondasunetan* % 0,4koa, *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* jaitsiera % 0,7koa izan delako eta *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* % 0,4koa. *Ekipamenduko ondasunen* prezioak, aldiz, % 2,1 igo dira eta *Bitarteko ondasunen* % 1,0.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman dizkie parte hartu duten establezimendu guztiei egin duten esfortzuagatik. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **85,34**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

- Taula estatistikoak: [\[ikus\]](#)
- Datu bankua: [\[ikus\]](#)
- Grafikoak eta bistaratzeak: [\[ikus\]](#)
- Kodeak eta nomenklaturak: [\[ikus\]](#)
- Definizioak: [\[ikus\]](#)
- Metodologia: [\[ikus\]](#)
- Egutegia: [\[ikus\]](#)
- Aurreko prentsa-oharrak: [\[ikus\]](#)